



237. zenbakia

· OTSAILA 2023 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Hileta

Egunkariak zioenez, bestetan zen eliz funtzioa. Aitortu beharra dut, gutxitan joaten naiz baina oraingoan, joan nahi nuen. Hildakoarekin izandako harremana, polita, betegarria, aberasgarria izan baitzen. Sei bat kilometro egin behar nituen eta garaiz atera nintzen garaiz iristeko, besteak beste, autoa aparkatzeko. Hau utzitakoan elizarantz abiatu nintzen jendeari sobera erreparatu gabe. Hala ere, hainbat komentario entzuteko parada izan nuen: "guti iraun zuen", "lan eginez joan da", "orain zer eginen dute bere autoarekin?"... Eliza atarian gelditu eta elizkizuna hasteko bost minutu falta zirelarik, barnera sartu nintzen. Han zegoen asotsa! Taberna zirudien. Ezin ulertu nuen, are gehiago, ezin ulertu dut. Eta jende horietako gehienak helduak, elizkoiak. Nire irudikoz, errespetu falta ikaragarria. Apaiza hasitakoan egin zen isiltasuna elizan, gaitz erdi! Aldiz, kanpotik heldu zen zarata lotsagarria zen. Zu, joan zaren hori, gizon zintzoa, lagunena laguna... Eskerrik asko elkarrekin egindako lan, irri eta solasaldiengatik. Atsedena har dezazula, biotz-bihotzez!

Joxejabierrena



Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe

amezti

komunikazioa

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte, Iosu Alfaro eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Dani Ericeren egurrezko lana eta bere semea. Urritzola-Galainen

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira otsailaren 17an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Zozketa mundiala*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Ingurumena. *Garapena*

11

Albisteak.

16

Ekimenak. *Sega belardiak*

20

Elkarrizketa. *Cristina Sevillano Santamaria, Amati*



22

Ardo Frexkoa. *Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten (III)*

24

Aspaldiko Kontuak. *Basaburuko udaletxea (III)*

27

Kirola. *Areto futbola*

30

Zer irakurri. *Otsaila*

32

Zer ikusi *amezti.eus-en*

33

Heriotza oharrak. *Rosario Etxandi Lizaso eta Hector Cabeza Goñi*

34

Jaiotzak eta heriotzak. *Abendua*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Eguberrietako loterian baino aukera gehiago, Pulunpeko zozketan

Ilbeltzaren 7an, eguberrietako oporretako azken egunean ospatu genuen Pulunpeko Zozketa Mundiala, Esan Erran irratiko estudioetan. Lagun talde ederra elkartu zen sabai txikian eguneko prestaketetarako: txartelak sortetatik atera, kutxetan sartu, nahasi, zozketaren irratsaiorako dena prestatu... 121 sari banatu ziren, guztira; tartean zeuden, noski, hamar zerri gizenak

Ilbeltzaren 7an, arratsaldeko 16:30etik 18:30 inguru arte, zuzenez emititu zen zozketa, eta txerri gizenak irabazi zituztenei zuzeneko deiak ere egin genizkien. Zozketako 121 sariez gain, telefonoz deitzen zuten lehenbizikoentzat beste hiru saskitto ere banatu ziren. Ondoko orrialdeotan, zozketako hainbat aurpegi jaso ditugu: txartel saltzaileak, erostunak, txerri gizenen irabazleak... eskerrik asko denei!



Masha eta Maria Puy Arano, txartel saltzaile eta laguntzaileak

Noiztik saltzen dituzue zozketako txartelak?

M.P: Hasieratik ametzakide izan naiz ni, eta zozketa martxan jarri zenetik saltzen ditut. Momentu hartan dirulaguntzak-eta murriztu zituztenez, proiektua aurrera

ateratzeko planteatu zen zozketa, eta niri hasieratik egokitu zitzaidan txartelak saltzea.

M: Ni, 15 urterekin hasi nintzen txartelak saltzen, duela sei bat urte.

Non saltzen dituzue batik bat?

M: Txantrean saltzen ditugu batez ere, baina Iruñean ere bai. Tira, eta gutxi batzuk Lekunberrin, Elizondon...

M.P: Bai, Berueten badago txartelak saltzen dituen jende gehiago, beraz, guk, kanpoan saltzen ditugu. Hemen, Txantrean, urteak daramatzagu saltzen, zozketa ezaguna da auzokideen artean.

Sari bereziren bat partitu izan duzue noizbait, ezta?

M.P: Bai, bai. Urtero, guk saldutako txartelen artean, bizpahiru laguni tokatzen zaie zerbait. Txerri gizona ere suertatu da hiru edo lau alditan, eta axuriak, sortak, saskitxoak... Gu geu arduratzen gara askotan erostunei eramateaz, eta polita izaten da hori. Gainera, urrutiko jendeari ere saldu izan dizkiogu txartelak: behin, Leongo emakume bati saldu nion txartela, eta, hara non, gazta tokatu zitzaion!

“Txantrea inguruan ezaguna da honezkero zozketa mundiala”

Txantrean ezagunak bazituela eta, haiei emateko eskatu zigun. Ez dakit nork aprobetxatu zuen!

Zuei ere sariren bat tokatu zaizue?

M: Bai, guk ere txartel dezente erosten ditugu urtero, eta tokatu izan zaigu zerbait. Saskitxo bat behin behintzat bai, eta beste behin, zaldian ibiltzeko bale bat.

Txartelak banatzeaz gain, zozketa egunean ere antolaketan laguntzen ari zarete. Zer moduzko esperientzia izaten da?

M.P: Bai, beti galdetzen dut nik laguntzarik behar ote den, batzuetan jende asko bildu izan da zozketa egunean eta ez da behar izan, baina azken 3-4 urteetan joaten gara laguntzera.

M: Politia izaten da zozketa eguna, ilusio handia egiten digu han egoteak. Gustura egoten garelako joaten gara.



Leontzio Uharte, urteroko erosle fina Noiztik erosten dituzu zozketako txartelak, Leontzio?

Zozketa martxan jarri zen momentu beretik, lehenbiziko urte hartatik naiz erosle fina.

Gainera, toki batetik baino gehiagotik hartzen dituzu, ezta?

Hala da, bai. Toki berezietan hartzen saiatzen naiz urtero: Auzako harategian, Igoan saltzen dituztenei, Igoako ostatuan, Apeztegi berriko dendan... Zenbaki desberdinak izatea gustatzen zait, eta, bestetik, dirua ateratzeko sistema bat dela jakinda, laguntzeko asmoarekin ere erosten ditut.

Aurten ere txartel dezente erosi dituzu?

Batzuk bai. Udabeko Bentan, Igoan eta Auzako harategian erosi ditut aurten, eta, ez dakit ziur zenbat, baina berrogi txartel inguru agian bai!

“ Aurten tokatu zait lehen aldiz sari bat, pozik egoteko moduan nago! ”

Bada zer bait! Eta, zorterik izan al da?

Aurtengoan bai! Pentsa, lehenago ez zitzaidan inoiz ezer tokatu, baina aurtengoan, esneki sorta bat tokatu zait. Pozik egoteko moduan nago, beraz!

Zenozko Itziar Irure, zerri gizenaren irabazlea

Zozketako txartelak urtero erosten al dituzue?

Bai, urtero erosten ditugu, eta aurretik ere sariren bat edo beste jaso dugu. Duela lauzpabost urte Goxuako saskia irabazi genuen, eta, iaz, nire alabak zuzenean deitu zuen zozketa egunean eta beste saskitxo bat ere lortu zuen. Gustatzen zaigu zozketa entzutea, zain egoten gara. Txartelak saldu ere egiten ditut.

Txartel nahikotxo zenituen?

Bagenituen batzuk, bai. Zenozko saltzaileari erosi nizkion hasiera batean, baina, gero, zozketa baino astebete lehenago txartel sorta bat eman zidaten niri saltzeko, eta orduan alabak hartu zizkidan batzuk, semeak ere bai, nik ere bai batzuk...

Zozketa zuzenean entzuten ari zinen zure izena atera zenean?

Bai, sekulako sorpresa hartu nuen! Familia etxean ari zen zozketa entzuten, eta ni pasiatzera atera nintzen, baina kaskoak jantzita. Zuzenean entzun nuen, bai.

Eta, zer aukeratuko duzue, zerri gizena edo harategiko bonoa?

Harategiko bonoa hartuko dugu. Badaezpada gurasoen etxean galdetu nuen lehenik, han urtero

bizpahiru txerri hiltzen baitituzte. Baina, ezezkoa esan zidaten, etxeokokin nahikoa zutela eta.

“ Umeei ilusio handia egiten die txartelak hartzea eta zozketa zuzenean entzutea ”





Lizasoko Gurutz Urzelai, zerri gizenaren irabazlea

Txartelak urtero erosteko ohitura al duzu, Gurutz?

Bai. Begira, laz familian erosi genituen, alaba etorri zen txartelekin eta hortik hartu genituen, eta zerri bat tokatu zitzaigun! Aurten, saltzeko txartel sorta gehiago hartu genituen Lizason banatzeko... eta, berriz, beste zerri bat! Tira, azkenean, probabilitate kontua ere bada: zenbat eta txartel gehiago, orduan eta aukera handiagoa!

Zergatik erosi zenituen txartelak, sariengatik edo Pulunpeko proiektua bultzatzeko?

Biengatik pixka bat, baina, nire kasuan, Pulunpe aldizkariak Lizason banatzen ditut, eta, beraz, esanen nuke proiektuagatik hartzen ditudala batik bat. Jendeak, agian, sariengatik

“ Iaz alabari
egokitu zitzaion
txerri gizona, eta
aurten, niri!
”

erosiko ditu batez ere, baina, tira, euskaltzaleak izaten dira normalean erosleak; beraz, proiektua bultzatzeko asmoz ere egingen dutela pentsatzen dut.

Zerri gizona egokitu zaizu aurtengoan. Zuzenean entzun zenuen zozketa, edo deiak ezustean harrapatu zintuen?

Sorpresaz harrapatu ninduen. Ordenagailu aurrean ari nintzen zerbaitetan, eta, halako batean, dei arraro bat. 'Zer ote da?', pentsatu nuen. Ez nekien zozketaren eguna zenik ere, ezta irratitik egiten zenik ere.

Zerri gizona edo Auzako harategiko bonoa aukeran eman dizuete irabazleei, zer aukeratuko duzu zuk?

laz bezala, aurtengoan ere harategiko bonoa hartuko dugu. Aste honetan joan naiz eta hasi naiz pixkanaka gauzak erosten. Urte osoan joanen naiz pixkanaka erosketa egiten, baina epemuga bat ere badago; beraz, beharrezkoa bada, bonoa erabili eta izozkailuan gordeko dugu haragia.

Odietako Latasako Eugenia Zenotz, zerri gizenaren irabazlea

Zozketan lehen aldiz parte hartu duzu aurten, edo baduzu ohitura?

Ez da lehen aldia izan, ez, urtero erosteko ohitura dut.

Eta, txartel asko zenituen, edo zorte kontua izan da?

Zorte ederra izan dut, hiru txartel besterik ez baintuen erosi aurtengoan.

Non erosi zenuen txartel saritua?

Hemen, herrian bertan erosi nituen txartelak, hemen saltzeaz arduratzen den herritarrari hartu nizkion.

Zer aukeratuko duzu, zerri gizona edo harategiko bonoa?

Harategiko bonoa eskuratuko dut. Hasieran ez nuen argi, baina, txerria hartzekotan jakin behar da gero nola landu, bere lana du... guk ez dakigu egiten. Beraz, azkenean bonoa hartuko dugu.

Aurretik beste sariren bat jaso al duzu Zozketa Mundialean?

Ez, lehen aldia izan da hau, eta kasualitate handia izan dela esanen nuke, inoiz ez baitzait deus tokatzen mota honetako zozketetan.

“ Zorte handia
izan dut, hiru
txartel baintuen,
besterik ez ”



Burutaingo Angelines Baraibar, zerri gizenaren irabazlea

Zozketa Mundialeko txartelak urtero erosten dituzu, edo aurten izan da lehen aldia?

Urte asko daramatzat txartelak erosten, baina, aurten zerbaiz berezia gertatu zitzaidan: saltzera etorri zirenean ez nuen kanbiorik, eta saltzaileari hamar xentimoko txanponetan ez ordaintzeagatik, txartel bakarra erosi nion. Eta, hara, horixe zorionekoa!

Txartel bakarrarekin zerri gizona tokatzea, zorte ederra!

Izugarria! Pentsa, astero jokatzeko dut primitiban, euromiloian... eta inoiz ez zait ezer tokatu! Eta, kasu honetan, ere, zenbaki bakar batekin irabazi dut. Zorionekoa ni!

Zergatik erosten dituzu txartelak urtero?

Ohitura kontua da, ez bainaiz euskalduna eta Pulunpeko deus ez dut ulertzen.

Nori erosi zenion txartel saritua?

Hemen, Burutainen erosi nuen. Auzokide batek saltzen ditu urtero, aldizkaria banatzen aritzen denak, eta berari hartu nion etxeko atarian.

Eta zozketa zuzenean ez zenuen jarraitu?

Ez, ez. Igande arratsaldean deitu zenidaten telefonoz, 19:00ak aldean, eta 'irratia' hitza entzutean, segituan pentsatu nuen euskarazko irratitik deitzen zenuela. Neskak zerria tokatu zitzaidala esatean, gelditu nintzen, behin eta berriz esan nion inuxente eguna pasatu zela eta txantxarrik ez egiteko... eta, azkenean, ikusi nuen egia zela. Agian ez nuen poz handiegirik erakutsi momentuan, baina shock egoeran nengoelako zen. Behin telefono deia moztekoan oihuka hasi nintzen ero bat bezala.

“ Primitiban, euromiloian... denetan jokatzeko dut, baina orain arte ez zitzaidan inon deus tokatu! ”

Zerri gizona edo harategiko bonoa, zer aukeratuko duzu?

Zerriarena zaila da, hona ekarriko duen jendea bilatu beharra baituzu, ganadu-hiltzailea ere bai... beraz, ez dut zalantzarik izan, harategiko bonoa aukeratu dut.

Eskerrik asko, Angelines, txartelak erosteagatik eta elkarrizketagatik.

Eskerrak zuei! Eta, ea hurrengo urtean berriz ere deitzen didazuen! Zerriarengatik ez bada, beste edozein sarirengatik...



▲ Aurten ere, Nora Ramoneda eta Aitor Arangoa aritu dira esatari lanetan



Batzarra orokorra bilduz hasi du urtea jubilatuen elkarteak

Elkartearen ohitura den bezala, urteko lehen ekintza batzar orokorra biltzea izaten da. lazko gorabeherak aipatuz urteari hasiera ematen zaio eta, ahal den neurrian, urteko egin nahiak finkatzen dira.

Urtarrilaren 25ean bildu ginen Larraintzarko bentako areto nagusian, 40 lagun inguru. Gizon eta emakume kopurua erdizterdi izanen zen.

Hasieran 2023koan egin genuena aurkeztu ziguten Miren, Gizarte Zerbitzuko teknikariak eta lehendakariak, ekintza bakoitzean zenbat andrek eta gizonek parte hartu zuten nabarmenduz.

Zeintzuk izan ziren egindakoak eta zer parte hartzea izan zen bakoitzean ikusi ondoren, bakoitzaren emaitza ekonomikoa aipatu ziguten. Laburpen taula batekin bukatu zuten, non urteko emaitza agertzen zen: -2.190,26€.

Jarraian azken 10 urteetako bilakaera erakutsi ziguten eta "Covid" izurriteko garaitik kanpo, beste urteetan ere emaitza negatiboa izan zela ikusten zen.

Gaiari heldu zitzaion eta, denon arteko eztabaida sakonaren ondoren, erabaki bat hartu zen: datorren urtetik aurrera, urteko kuota igoko da, 20 euro tara.


Ordeneko ondorengo puntua 2024ko plana egitea zen. Udaberriko eta udazkeneko festak zehaztu ziren, uztailleko kalderetea, otsailleko sagardotegia, urriko Benidormeko bidaiak eta ideia pila bat izan ziren, beste txango eta bidaiak egiteko. Badu lana zuzendaritza berriak!!!

Bai, berria da zuzendaritza, hori baizen hurrengo puntua, ordezkariak aldatzea.

Mari Cruz Ayensa, Loli Tornariak eta Joaquin Echeniquek utzi zuten; eta, lehendik beste leku bat betegabea geneukanez, lau ordezkari hautatu behar genituen.

Aldiro saiatzen gara toki desberdinekoak hautatzen eta

TXANGOAK



▲ Txangoetako parte hartzea (berdez andreak, urdinez gizonak)

| SAILA | SARRERAK | IRTEERAK | EMAITZA |
|-----------------|--------------|---------------|-------------|
| Ariketak | 6.500,00 € | -8.603,20 € | -2.103,20 € |
| Arkupeak | 26.770,00 € | -26.770,00 € | 0,00 € |
| Bidaiak | 62.870,00 € | -62.870,00 € | 0,00 € |
| Festak | 12.880,00 € | -15.606,78 € | -2.726,78 € |
| Orokorra | 13.175,12 € | -4.246,26 € | 8.928,86 € |
| Txangoak | 26.886,00 € | -33.175,14 € | -6.289,14 € |
| Emaitza | 149.081,12 € | -151.271,38 € | -2.190,26 € |



| | |
|------------------------|----------------------------|
| Lehendakaria | Benito Alberto Goñi |
| Lehendakariorde | Lourdes Eugui Arraiza |
| Idazkaria | Mari Cruz Iraizoz Gonzalo |
| Diruzaina | Leonzio Huarte Alsua |
| Batzordekide 1 | Javier Goñi Bravo |
| Batzordekide 2 | Javier Aginaga Arribillaga |
| Batzordekide 3 | Gurutz Urcelai Iribarren |
| Batzordekide 4 | Violeta Tarazaga Boudon |
| Batzordekide 5 | Nicolas Iragui Ciganda |
| Batzordekide 6 | Enrique Olcoz Amatriain |



▲ 2024ko zuzendaritza taldea.

aurtegoan nahiko ongi gelditu da konposaketa, taulan ikusi daitekeenez:

Eta izendapen hauekin, bukatutzat eman zen batzarra, ostatuan zer bait hartzera gonbidatu ondoren.

Hurrengo egitekoak: alde batetik, sagardotegirako txangoa, otsailaren 22an izanen dena eta, bidenabar, Donostiako Aquariuma ikusteko aukera emanen dena; eta, beste aldetik, herrietako delegatuekin eginen dugun bilera. Datorren alean kontatuko dizuegu zertan joan diren. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat



**Denok Bat
Jubilatuena Elkarte**



▲ Batzarra ondorengo "batzarrean"



Garapena?

Gure jardueraren eragina, tokiko hegaztietan

Gizakiok ez gara ezeren erdigunea. Holaxe erakutsi digu zientziak behin eta berriro. Gure planeta hau ez da unibertsoaren erdigunea, ezta eguzki sistemarena ere. Gure planeta, gure izarra, gure galaxia... ez dira bakarrik, ez handienak, ez berezienak. Ezta gureak ere. Eta gure espeziea ez da eboluzioaren gailurra, eboluzioan ez baitago gailurrik.

Baina bizitzaren sarean badira gugandik gertuago dauden geruzak. Ez gaituzte inguratzen, gure inguruan bizi dira. Txorien artean etxe-txolarrea da adibiderik argiena baina ez bakarra. Eta nolakoa da gure gertuko bizilagun horien osasuna? Nola dago, gaur, haien populazioa? Eta zer esan nahiko du egoera horrek?

Estatu mailan, gizakiontzat arruntak diren hegaztien biztanleria jarraitzen duen programak SACRE izena du, gaztelerako haren hizkiengatik (Seguimiento de Aves Comunes Reproductoras). Programa hau hiritar zientziaren eredu polita da: ehunka hegazti zaleek urtero pilatutako datuek gure zuzeneko inguruaren osasuna adierazten digute.

Eta etxe-txolarreen populazioak 2008-2018 tartean %21eko gainbehera izan duela erakusten digute. Gutxi gorabehera 30 miloi etxe-txolarre gutxiago daude estatuan. Etxe berriek ez dute habientzako zirrikiturik; parke, baratze eta zelaietan erabilitako herbizida eta bestelako pozoiek jakirik gabe uzten dituzte; hirietako keak, argiek eta zaratek hegaztien erritmo biologikoak apurtzen dituzte eta ugaltze tasa urritzen doa.

Tamalez, etxe-txolarrea ez da kasu bakarra: txio arruntaren banaketa geografikoaren %16 galdu da; apohontzak bere populazioaren %32 galdu du; eta Ultzama aldean ikus dezakegun antzandobi arruntak

%50eko gainbehera izan du. Europar batasunean, oro har, abeltzaintza eta nekazaritzarekin lotutako hegaztiak %36ko gainbehera izan dute 1990-2021 tartean.

Gure barazki eta abereengandik gertu dauden bizitzaren geruzak ahultzen ari gara. Babesten gaituzten sareak makaltzen ditugu. Ez omen da beste modurik. Konpetitiboak izan behar dugu eta ekonomiarekin ez dago eztabaidatzerik.

Hala ere, naturak ereduak eskaintzen ditu. Loreak moldatzen hasiak dira. Intsektu gutxiago daudenez (hau hegazti askoren gainbeheraren erroan dago, guk erabiltzen ditugun pozoienengatik), intsektuak erakartzeko nektar gutxiago ekoizten dute. Aldi berean, loreek beren burua polinizatzeko gaitasuna sendotzen ari dira. Eredu zaharrak ez badu funtzionatzen, detektatzeko eta erantzuteko gai dira loreak.

Gaurko eredu ekonomikoaren ahoaren parean gure etorkizuna dago. Oraingoan bai. Gugandik gertuen dauden bizitzaren hariak



▲ Etxe-txolarrea. Oscar Valencoso, Iturria, flickr.

“ **Bizitzaren hariak ahuldu egiten dituen eredu horrek ez du garapena ekartzen** ”

ahuldu egiten dituen eredu horrek ez du garapena ekartzen. Ez du aurrerapenik sortzen. Gaixotu egiten gaitu. Zerbaiten aurre-historian gaude. Bizitza erdigunean jartzen duenaren hasieran. Eta hori nola egiten den erabakitzen hasi beharko dugu. Bidea ez dago oso argi. Baina akatsak sakontzeari utzi beharko diogu. Agian, zaharkitu den eredu alde batera uzten hasteko garaia iritsi da?



losu Alfaro

Etxe-txolarreen populazioak 2008-2018 tartean %21eko gainbehera izan du. Seobirdlife.org



◀ Loreak moldatzen hasiak dira. The Guardian

Adarra jotzen, losu Alfaroren kolaborazioa Esan Erran irratian.





Korrikak martxoaren 19an zeharkatuko du eskualdea

Sakanatik helduko zaigu 23. korrika, izan ere, Irurtzun atzean utzi eta Imozko Latasatik sartuko da gurean. 9:34ean gertatuko da hori, ordutegia aurreikusit bezala betetzen bada, behintzat.

Latasatik Erasora joanen da. 10:00ak jo baino lehen sartuko da Erason eta, Oskotzera abiatu baino lehen, Etxaleku ere igaroko du 10:10ean. Ondoren, Oskotzerako bidea hartuko du, eta Oskoztik Eritzegoitirantz abiatuko da, Atetzen sartzeko, 11:00etan. 11:15ean iritsiko baita Eritzera eta hortik Odieta eta Ultzamarako bideak hartuko ditu.

Odietan Gelbentzu zeharkatuko du, 11:40 pasata. Ultzaman, Lizaso, Larraintzar eta Auza igaroko ditu; 12:00 eta 12:30 bitartean. Ondoren, Basaburura sartuko da, Jauntsaratsera 13:26an iritsiko da, eta, handik, Berueteko bidean gora joanen da. 14:00etan Basaburua atzean uzten joanen da eta Aldatzerako bidea hartuko du.

23. korrika martxoaren 14an hasiko da Irunen eta Baionan amaituko da martxoaren 24an; 2700 kilometro eginen ditu, osotara. Ibilbidea ezagutu dugu honezkero, eta, kilometroak erosteko epea otsailaren 1ean zabaldu da.

KORRIKA Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEKko euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen KORRIKA antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen

den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da.

Aurten ere, gainera, Korrika kulturala izanen dugu Korrika iritsi bitartean. Hau da, euskarazko

hainbat ekimen kultural ari dira prestatzen eskualdean hainbat batzordek. Adi! Egitarauak laster eginen dituzte

23. korrika HARRO HERRI
Iruindik Baionarat 2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus

| | | | | | |
|------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|
| MAIATZAK 14, OSTEGUNA | MAIATZAK 16, LARUNGETA | MAIATZAK 18, ASTEAZKENA | MAIATZAK 20, ASTEAZKENA | MAIATZAK 22, OSTEGUNA | MAIATZAK 24, OSTEGUNA |
| Irun 18,00 | Eibarreko 00,34 | Leizorri 00,10 | Leizorri 00,10 | Leizorri 00,10 | Leizorri 00,10 |
| Hondarribia 16,27 | Maiztegui 03,19 | Maiztegui 03,19 | Maiztegui 03,19 | Maiztegui 03,19 | Maiztegui 03,19 |
| Leizorri 13,18 | Donostia 24,81 | Donostia 24,81 | Donostia 24,81 | Donostia 24,81 | Donostia 24,81 |
| Leizorri 11,26 | Zarautz 06,51 | Zarautz 06,51 | Zarautz 06,51 | Zarautz 06,51 | Zarautz 06,51 |
| Zarautz 10,41 | Urduliz 07,36 | Urduliz 07,36 | Urduliz 07,36 | Urduliz 07,36 | Urduliz 07,36 |
| Donostia-Luzuriaga 09,08 | Urduliz 08,19 | Urduliz 08,19 | Urduliz 08,19 | Urduliz 08,19 | Urduliz 08,19 |
| Arkaun 19,40 | Aurkida 09,25 | Aurkida 09,25 | Aurkida 09,25 | Aurkida 09,25 | Aurkida 09,25 |
| Arkaun 21,98 | Agurtz 10,54 | Agurtz 10,54 | Agurtz 10,54 | Agurtz 10,54 | Agurtz 10,54 |
| Karbo 23,43 | Urduliz 11,52 | Urduliz 11,52 | Urduliz 11,52 | Urduliz 11,52 | Urduliz 11,52 |
| Arkaun 23,29 | Urduliz 12,91 | Urduliz 12,91 | Urduliz 12,91 | Urduliz 12,91 | Urduliz 12,91 |
| MAIATZAK 15, OSTIRALA | MAIATZAK 17, ASTEAZKENA | MAIATZAK 19, ASTEAZKENA | MAIATZAK 21, OSTEGUNA | MAIATZAK 23, ASTEAZKENA | MAIATZAK 25, ASTEAZKENA |
| Hazpene 00,47 | Herramite 17,56 | Herramite 17,56 | Herramite 17,56 | Herramite 17,56 | Herramite 17,56 |
| Donostia 04,13 | Urduliz 17,14 | Urduliz 17,14 | Urduliz 17,14 | Urduliz 17,14 | Urduliz 17,14 |
| Ale 05,29 | Aurkida 17,29 | Aurkida 17,29 | Aurkida 17,29 | Aurkida 17,29 | Aurkida 17,29 |
| Maulu 06,53 | Urduliz 17,43 | Urduliz 17,43 | Urduliz 17,43 | Urduliz 17,43 | Urduliz 17,43 |
| Donostia 07,19 | Arkaun 18,06 | Arkaun 18,06 | Arkaun 18,06 | Arkaun 18,06 | Arkaun 18,06 |
| Leizorri 09,20 | Bermeo 18,16 | Bermeo 18,16 | Bermeo 18,16 | Bermeo 18,16 | Bermeo 18,16 |
| Sondara Gatzag 10,54 | Bermeo 19,12 | Bermeo 19,12 | Bermeo 19,12 | Bermeo 19,12 | Bermeo 19,12 |
| Ale 11,24 | Urduliz 19,30 | Urduliz 19,30 | Urduliz 19,30 | Urduliz 19,30 | Urduliz 19,30 |
| Bargara 12,16 | Arkaun 19,38 | Arkaun 19,38 | Arkaun 19,38 | Arkaun 19,38 | Arkaun 19,38 |
| Urduliz 14,14 | Bermeo 20,37 | Bermeo 20,37 | Bermeo 20,37 | Bermeo 20,37 | Bermeo 20,37 |
| Urduliz 14,34 | Bermeo 21,48 | Bermeo 21,48 | Bermeo 21,48 | Bermeo 21,48 | Bermeo 21,48 |
| Urduliz 14,34 | Urduliz 22,29 | Urduliz 22,29 | Urduliz 22,29 | Urduliz 22,29 | Urduliz 22,29 |
| Urduliz 15,08 | Urduliz 23,04 | Urduliz 23,04 | Urduliz 23,04 | Urduliz 23,04 | Urduliz 23,04 |
| Urduliz 15,29 | Urduliz 23,27 | Urduliz 23,27 | Urduliz 23,27 | Urduliz 23,27 | Urduliz 23,27 |
| Urduliz 16,23 | Urduliz 23,94 | Urduliz 23,94 | Urduliz 23,94 | Urduliz 23,94 | Urduliz 23,94 |
| Urduliz 16,63 | MAIATZAK 17, ISABARRA | MAIATZAK 19, ASTEAZKENA | MAIATZAK 21, OSTEGUNA | MAIATZAK 23, ASTEAZKENA | MAIATZAK 25, ASTEAZKENA |
| Urduliz 20,00 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 |
| Urduliz 20,18 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 |
| Urduliz 21,17 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 |
| Urduliz 22,11 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 |
| Urduliz 23,38 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 |
| Urduliz 23,38 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 | Urduliz 00,55 |

araba álava foru alundia diputación foral

Maquelsa INPRIMATZE SOLUZIOAK www.maquelsa.com

oreka i.t. corporate balance



Nesken ekipoa osatu nahi du BRT Menditarrak errugbi taldeak

Neska taldea osatu nahi du BRT Menditarrak eta Ultzamaldeko herritarrak ere bildu nahi ditu horretarako. Lekarotzen biltzen dira, ortziralero, 18:30ean, entrenatzeko, baina, oraindik ez dira nahikoa taldea osatzeko. Biltzen diren nesken artean badira eskualdekoak ere, baina gehiago animatzea nahiko lukete. Horretarako, ortziraletako entrenamenduetara hurbiltzeko deialdia zabaldu dute gurean.



Imozko eta Basaburuko pala txapelketa hasi da

Urtarrilaren 26an hasi zen eta martxoaren 23an amaituko da. Lehenengo mailan sei bikotek eman dute izena; eta, bigarren eta hirugarren mailan, bost bikotek. Tamalez, aurten ez da emakumezko fronteniseko txapelketa egiteko talderik osatu, bikote gutxi eman baitzuten izena.

Aipatu maila bakoitzean ligaxka egingen da eta hortik aterako dira talde bakoitzeko bi bikote onenak. Horiek joanen dira, zuzenean, finalera. Esan bezala, martxoaren 23an izanen dira finalak.

Imozko eta Basaburuko kirol batzordeak antolatzen duen txapelketaren egutegia, partiden emaitzak eta arau orokorrak txapelketaren webgunean dituzue: <https://basaburua-imotz.gune.app/kirolak/txapelketak/paleta-goma-eta-frontenis>.





Errege bezpera

Gerendiango Angel Beuntzak aipatzen zidan nola, bere haur denboran edo ttikia zenean, galdu zela herrian Errege bezperan joaleak hartuta karrikak alaitzen ibiltzeko ohitura.

-Ba, badakizu, inozentzia galdu genuenean utzi genion ohitura horri.

Ondoren galduko zen Ultzamako gainerako herrietan. Hala ere, orain Alkotzen gaztetxoak ibiltzen dira. Basaburua eta Imotzen ere zenbait herrik eusten diote ohiturari. Etxalekun jende poliki ateratzen da "biba errege"-ka. Orain, eguberri kantua ere kantatzen dituzte ethez etxe eskea egitean. Honetan izan du aldaketa ohitura honek.

Beste herri bat aipatzekoan, Beruete aipatuko genuke. Berueten indartsu dago ohitura eta berezitasunen bat badu tartean. Datorren urtean xehetasun gehiago ekarriko dugu.

Aurten, Ultzaman berreskuratu dute lehengo ohitura eta 6 neska-mutil ibili dira Arraitz, Iraizotz, Lizaso eta Larraintzarren.

Ilaje gaiztoko eguraldia, hotza, eta okerrena dena, goian behian eurie, atertu gabe. Eta neska-mutil hauek erakutsi digute gauzak egin nahia nagusitzen denean, oztopo guzien gainetik pasatzen dela. Borondatea da nagusi!

Torizue bostekoa, bihotz bipilok!!!



◀ *Goitiko lerroan, ezkerretik eskuinera:*
Iosu Loiarde, lanztarra
Mikel Marturet, lizasoarra
Carlota Lledó,
Gerendiango
Beheitiko lerroan,
ezkerretik eskuinera
Patxi Landiribar,
galaindarra
Lorea Balda, orokietarra
Irati Gerendiain, Lizasokoa
(Fotografiaren egilea,
Jaione Mariñelarena,
Lanzkoa)



Carrefour
express
 Zugandik gertuago

**¡Zure zain
 gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
 31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
 IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00



CAMPING - KANPINA
IZARPE
 ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Euskal Herriko mus txapelketa hasi da

Otsailaren 25era bitartean herriz herriko kanporaketak jokatu behar dira. Hor lortuko dituzte hainbat bikotek Nafarroako finalerako txartela. Hori Iruñean izanen da, martxoaren 9an. Euskal Herriko finala, ordea, martxoaren 23an jokatu da Altzain (Zuberoa).

Gure eskualdean aldizkari hau itxi dugun arte bost final jokatu dira: Gartzarongoa, Apeztegierrikoa, Lanzkoa, Iraizozkoa eta Izarpekoa.

Izarpekoa abenduaren 29an jokatu zen, eta hamaika bikotek parte hartu zuten. Horietako bi sailkatu dira Nafarroako finalerako: Ander Esain eta Jon Etxeberria; eta Oier Kañamares eta Mikel Ibero txapeldunordeak.

Iraizotzen zazpi bikotek parte hartu zuten urtarrilaren 14an izandako kanporaketan. Julen Iberok eta Angel Rodrigok lortu zituzten Nafarroako finalerako txartelak.

Lantzen urtarrilaren 26an izan ziren partidak, antolatu diren lehenengo urtea da, eta bost bikotek parte hartu zuten. Ricardo Eugi eta Joseba Loiarde sailkatu dira Nafarroako finalerako.

Apeztegierrin izan zen ondoren, lau bikoterekin. Mertxe Larraiotz eta Sebe Eugi sailkatu dira. Eta, bukatzeko, Gartzaronen aritu ziren zortzi bikoteetatik,

Oier Legarrak eta Iñaki Barbajerok osatzen dutena lehiatuko da Iruñean.

Otsailean Igoan, Aizarotzen, Gartzaronen eta Apeztegierrin ere jokatu dira. Baita Berueten ere, Lantzen modura, lehenengo aldiz.

Euskal Herriko mus txapelketaz gain, izugarri arrakastatsua izan den beste bat ere izanen dugu eskualdean. Izarpe kanpinoko mus txapelketaz ari gara. Urtarrilaren 12an hasi zen eta 24 bikotek hartu zuten parte. Otsailaren 2a bitartean, ostiralero, izan dira bikoteen arteko lehiak, 22:00etatik aitzin.



Akats baten zuzenketa

Pulunpeko 236. alean, kiroletan, Pablo Aldaz eta Jon Patxi Okiñena pilotari gazteen inguruko erreportajea argitaratu genuen. Bertan egindako akatsa zuzendu nahi dugu honetan.

Erreportajearen hasieran, akatsez, honako hitzak egokitu genizkion Jon Patxi Okiñenari: "Pilotari askoz hobeak zeudelako joan nintzen Oberenatik. Paterrekin ikastera etorri nintzen Ultzamara".

Jon Patxi Okiñenak esandakoa, ordea, honako hau da: "Pilotari oso onak eta asko zeudelako joan nintzen Oberenatik. Paterrekin ikastera etorri nintzen Ultzamara".

Argitaratutako esaldiak errealitatearekin egokitzen ez diren interpretazioak eragin ditzake, eta horregatik barkamena eskatzen diogu Jon Patxi Okiñenari.





deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA



Balio natural handiko sega belardiak babesteko, dirulaguntzak

Nekazaritza Politika Bateratuaren barruan (NPB, gazteleraz, PAC) dirulaguntza atal berri bat zabaldu dute, balio natural handiko sega belardiak babesteko. Nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboarekin lotura duten eta mozten diren belardiak dira; ezaugarri eta kudeaketa berezi horren ondorioz, bioaniztasun handiko lurak dira eta horregatik babestu nahi dira.

Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) kanpaina otsailaren 1ean hasi da eta apirilaren 30ean bukatuko da. Orduan jarriko da martxan dirulaguntza lerro berri hau. Eta, horregatik, informazioa zabaltzen ari dira, besteak beste, Nafarroako Gobernuko GAN-NIK (Nafarroako Inguruen Kudeaketa enpresa publikoa) erakundetik, Cederna Garalur eta Mendialdeko Elikadura Mahaiaren laguntzarekin.

Izan ere, nahiz eta gure eskualdean abeltzaintza eta nekazaritza intentsiboa nagusi izan, badira balio natural handiko sega belardiak ere. Horiek kudeatzen dituzten abeltzainek laguntzen berri izan

dezaten, eta, identifikatuta ez dituzten horiek ezagutu nahi dituzte. Lanzko bizilaguna dugun Silvia Zabalza, GAN-NIKeko Nekazal Dibertsitate Arloan lan egiten du eta Nafarroa osoan laguntzen berri emateko hitzaldiak eskaini ditu: "Ultzaman, Lantzen eta inguruan, abeltzaintza intentsiboa da nagusi, baina belardi hauek, egon, badaude. Batez ere zonalde isolatuagoetan daude, mekanizazioa eta intentsifikazioa zailagoa den tokietan. Toki maldatsuetan balio natural handiko alorrak izatea ere errazagoa da. Odietan ikusi ditugu batzuk, Lantzen ere badira mendi aldean... badira, bai".

Zergatik babestu

Izenak esaten duen bezala, mozten diren belardiak dira sega belardiak, ezin dira, bakarrik, bazka belardiak izan, abereek belar hori jateaz gain, moztu behar dira. Silvia Zabalza: "Gure aurreko azterlanetan ikusi dugu kudeaketa praktika hori ez bada egiten, ez badira mozten, bakarria bazkatzen badira, ez dela lortzen nahi dugun flora aniztasuna". Eta, esan bezala, abeltzaintza eta nekazaritza estentsiboarekin harremana izan behar dute: "Praktika intentsiboa egiten bada, larre horietan ez da lortzen behar dugun bioaniztasuna. Esaterako, urtero edo bi urtean behin ereiten bada, artoarekin nahasten bada, minda botatzen bada, ongarri minerala erabiltzen bada, ezinezkoa da bioaniztasun hori lortzea. Bioaniztasuna ez da egun batetik bestera lortzen, eta sega belardi horiek tradizionalak izaten dira normalean, kudeaketa hori dute duela urte askotatik".

Zabaltzak azaldu digunez, NPBk periodo berri bat hasi zuen 2023an, non ingurumen helburuek pisu handiagoa lortu duten: "Helburu horien barruan, paisaia eta biodibertsitatea kontserbatzea da bat. Horren barruan hitz egiten da balio handiko natura sistemen babesa bultzatzeaz, eta horren barruan dator dirulaguntza berri hau".



Sega belar bat Belaguan Silvia Zabalza (GAN-NIK) ▲



Nork eskatu ditzake eta nola

Lehenengo baldintza, abeltzaina izatea: "Baldintzak honakoak dira: abeltzainak izan behar dute eskatzaileek, NPB deklarazioa egin beharra dute, eta larreak lehen, bigarren edo hirugarren nekazaritza eskualdean egon beharra du. Gure eskualde osoa dago hor sartuta, beraz, ez dago arazorik zentzu horretan". Zabaltzak azaldu digunez ez da zaila eskaria betetzea, baina berezia da: "NPBren deklarazioa egiterakoan aukeratu behar da laguntza hori, eta adierazi zein larretarako eskatzen den. Gero, fitxa bete behar da, eta gutxieneko puntuazioa lortu beharra da laguntza jasotzeko. NPBren kanpaina otsailaren 1ean hasiko da eta apirilaren 30ean bukatu. Tarte horretan eskatu behar dute laguntza, baina fitxa, loreak daudenean beteko dute, maiatzetik uztaile bitartean".

Besteen ezberdina da, beraz, aipatu bezala, baina Silvia Zabaltzaren ustez, onerako: "Normalean, NPBren dirulaguntzak kudeaketan oinarritzen dira: zerbait egin behar duzu, betetzen duzu, eta laguntza jasotzen duzu. Honetan, ordea, ezberdina da. Indikatibo batzuk diseinatu dira, eta fitxa batean bete behar ditu abeltzainak indikatibo horiek. Puntuaketa bat izanen du, eta zenbat eta puntu gehiago jaso, laguntza geroz eta handiagoa izanen da. Filosofia berri horretan, ziur aski hasieran jendea izutu egingen da, zaila dela eman baitezake, baina, ez, oso erraza da, eta ingurumen onurak lortzeko askoz erlazio argiagoa da. Ingurumen ikuspuntutik hobea da filosofia hau".

Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan Silvia Zabaltzari egindako elkarrizketa, osorik



“ **Abereek bazkatu bakarrik ez, moztu beharreko belardiak dira balio handiko segakoak. Horregatik, bioaniztasun izugarria lortzen da** ”

Otsailaren 1ean hasi eta apirilaren 30ean bukatuko da NPBko aurtengo kanpaina.

Dirulaguntzak eskatzeko aholkularitzarako:

Silvia Zabaltza Armendariz

Nekazaritza Dibertsitatearen Arloa, GAN-NIK

848 42 07 15



▲ Beste sega belar bat Belaguan. Silvia Zabaltza (GAN-NIK)



Ultzama erregeak zahar etxean



Ultzama erregeak



Silbrestre eguna, Lizason



Urtetxak Suarben



Imoztarrak San Bartolome ermitan



64 pertsona bildu ziren Etxalekuko biltokian, bertso afarirako.



Aizarozko neguko pestak



Jauntsarasko ikasle ohiak. Ezker-esk, Edurne Jaunarena Adur bere semearekin; Oihana Azpiroz, Enaitz bere semearekin; Amaia Loidi eta Aimar; Alaia Etayo eta Iara



Zorionak Sagra eta Ritxar!



Buruzgain taldeko txikiak. Abenduaren 22an pilota partidak eta txokolatada egin zuten



Utzamako Amati abesbatzan, zuzendari berria

Cristina Sevillano Santamaria da Amatiko zuzendari berria. Berriozarko Elkarrekin abesbatzaren zuzendaritza uztartuko du Amatikoarekin eta gogo handiz hartu zuen erronka irailean, ikasturte berriarekin. Berarekin eta abesbatzako Patxi Olaiz eta Javier Garayoa kideekin elkartu gara entsegu baten aurretik.

Cristina Sevillano Santamaria zuzendariak (Iruñea, 1981) txiki txikitatik izan du musikarekin harreman estua: "Gure etxean musika beti izan da protagonista. Goizean goizetik iluntzera arte. Denetarako. Gure aitona melomano hutsa zen eta Manuela Santamaria gure amaren izeba batek, maistra zena, biolina jotzen zuen. Gaur egungo Orkestra Sinfonikoa denaren -orduko Santa Zezilia orkestraren-lehenengo emakume biolin jolea izan zen. Eskolara gure bila joaten zen eta musika ere erakusten zigun".

Horrela, bost urte besterik ez zituela, abesten hasi zen: "Amak mezara eramaten ninduen berarekin, San Ignazio elizara, eta han Jose Maria Goikoetxea apaizak organoa jotzen zuen. Izugarri gustatzen zitzaidan bera jotzen ikusteak, pedalak eta oinak nola erabiltzen zituen ikusteak liluritzen ninduen batez ere. Egun batean notak abestea eskatu zidan eta ahots oso polita nuela esan zion amari. Horrela hasi nintzen Nafarroako ume abeslarien (Los niños cantores de Navarra) abesbatzan". Instrumentuei dagokienez klarinetearekin hasi zen baina ikasketak pianoan burutu zituen: Klarinetearekin konexio handiagoa nuen, baina piano ikasketetarako plaza libratu zen eta etxean izugarri pozik zeuden, ea nork esaten zien ezetz!". Abesbatzetan bakarrik ez, bakarlari ere aritu da lirikan eta operan. Zuzendaritzan 2015ean hasi zen.

2015ean hasi zinen zuzendari, Berriozarren lehenengo, orain bietan. Nolako da zure lana?

Erantzuten zaila da galdera hori. Lehenengo gauza, errepertorioa aukeratzea da. Eta hori da gauzarik zailenetakoa. Ikusten ez den lana da hori, gainera. Funtzionatuko duenarekin asmatzea. Pieza ezin da oso zaila izan, denbora asko beharko genukeelako prestatzeko. Baina, ezin da errazegia ere izan, beraiek ere erronka bat izan dezaten. Asmatu dugun edo ez praktikan jartzen ikusten da, kontzertuetan eskaintzen. Batzuetan zoragarria izango dela uste duzu eta ikuslegoa hotz gelditzen da. Horietan pentsatzen duzu, "joe, kostatu zaigunaren ondoren!"; eta, beste batzuetan, gauza askoz ere sinpleagoekin, jendea

liluraturik gelditzen da. Normalean errekarman izaten ditugu kanta batzuk, garrantzitsua da abesbatzak berarendako adierazgarri diren batzuk izatea, ikuslegoak ezagutuko dituenak; eta, beste batzuk aldatzen doaz, urtero 10 bat berri prestatuko ditugu. Baina nire lanaren parterik zailena giza arloa kudeatzea da, hau da, taldekoen artean egiten den harremana. Oso garrantzitsua da inork sentitu ez dezala gutxiago dela. Guzti-guztiak berdin tratatu behar ditugu. Aldi berean, talkak daudenean, ongi eramatea eta horiek ahalik eta hobekien konpontzea. Zuzendaria lider bat da, taldearen erreferentzia izan behar da, baina modu egokian: autoritatea izan (hau ez zait oso ongi ematen, adibidez), baina pasatu gabe, jendea disfrutatzen joaten baita!



Cristina Sevillano Santamaria, Amatiko zuzendari berria, Larrainzarren



Zenbatak osatzen dute Amati?

C.S: Aurten handitu da. 19 dira. Nik ere Iruñetik batzuk ekarri ditut.

Patxi Olaiz: Pasa den urtean 13 ginen, pentsa.

Javier Garayoa: Zirkunstantziala izaten da hori. Batzuetan izugarri hazten da eta hurrengo urteetan, agian, kopuruak behera egiten du.

2019an Patxi Olaizi elkarrizketa egin genion eta herritar gehiago batzeko deialdia egin zuen, batez ere gizonak, gutxi zeudelako. Orekatu al da hori?

Bai, oreka gehiago dago. Gizonezkoek emakumezkoak baino gutxiago izaten jarraitzen dute, baina orekatu da pixka bat. Nik ere banekien tenore gutxi zirela, eta, aipatu dudan bezala, pare bat gizon ekarri nituen nirekin Iruñetik.

Parte-hartzaileek ez dute zertan ikasketa musikalik edo ezagutza berezirik izan behar, ezta? Zalantzan dagoen hura animatuko dugu izena ematera?

Ez da behar ezagutza berezirik, ez. Baina horrek ez du zerikusirik ongi edo gaizki kantatzearekin, eta,

Amati abesbatzak ostegunero entsaietzen du, 18:00etatik 20:00ak arte. Zuk ere parte hartu dezakezu!

noski, dohain batzuk beharrezkoak dira, eta, garrantzitsuena, belarria izatea. Baina, esate baterako, ez da partitura bat irakurtzen jakin behar. Irakurtzen ez dakienak olerki bat errezitatu al dezake? Bai, buruz ikasiko du, tonua nola erabili ikasiko du... irakurtzen badaki erraztasun gehiago izanen al du? Bai, baina ez da derrigorrezkoa. Zalantzan dagoen horri esanen nioke probatzeko, zalantzaren aurrean, etortzeko, beti.

P.O: Afizio hau partekatzen dugunok elkartzeko aitzaki bat izaten da. Abesteaz haratago doa.

J.G: Sozializatzea, beste lagunekin elkartzea, hori da garrantzitsuena. Batzuk, agian, etxetik ateratzen diren une bakarria izaten da. Hori oso garrantzitsua da guretzako.

Cristina, zer nabarmenduko zenuke Amatiz eta haien kideez?

Oso ongi abesten dute, hori hasteko. Eta, gainera, gutxi dira, eta horrek erraztasunak ematen ditu. Aurretik beste aukera bat izan nuen Amati zuzentzeko, baina ezin izan nuen. Orain, zuzendaririk gabe gelditu zirenean, berehala eskaini nuen nire burua. Ezberdina da 25 kideko abesbatza bat zuzentzea edo 15 bat kide dituen. Gutxiago direnean, edozein argibide ematen duzula, edo taldea isilaraztea, zuzenketaren bat egiteko, askoz azkarrago egiten da. Horregatik, lana arinago doa.

Prestatutakoa, gero, kontzertuetan erakusten duzue. Asteroko lana oholtza gainean erakusteak zer sentiarazten dizue?

P.O: Niri gustatzen zait, behar dut. Entseiatzen gustura aritzen naiz, baina kontzertuek helburu bat jartzen dizute, pizten zaituzte, urduritasun puntu hori gustatzen zait eta beharrezkoa zait.

J.G: Jendea abesbatzara batzeko deia egiten dugu beti, baina nik beste eskakizun bat gehiago egiten nuke. Jende gehiago etorri dadila kontzertuak ikustera, gu ikustera. Batzuetan kide gehiago egon gara abesten publikoan ikusten baino... eta pena izaten da. Gure lana erakustea gustatzen zaigu, eta jendeak disfrutatzen duela uste dut.

Zuek abesbatza bat baino gehiagotan zaudete. Engantxatzen al du?

P.O: Bai, ni Iruñeko Miruan nago.

J.G: Ni Berriozarko Elkarrekin abesbatzan.

C.S: Engantxatzen du, bai, bai.

Manuela Santamaria 1913-1995

Cristina Sevillanoren amaren izeba. Santa Zezilia orkestrako lehenengo emakume biolin jolea izan zen. Santa Zezilia gaur egungo Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren aitzindaria da. Gehiago jakiteko, Iruñeko Udalaren Berdintasun Atalak argitaratutako *Mujeres que la historia no nombró 2* liburua duzue. Udalaren webgunean deskargatzeko aukera duzue.



▲ AMATI ABESBATZA IRAIZOTZEN 23-12-29



Zuzentzen zigiten eta zuzendu gintuzten (III)

Bi hamarreko! -Eduki!

Aurrekoan goiz hasi eta ilunabarrean bukatu genuen. Gaur, egia esan, ez dakit nondik nora edo non hasi eta non bukatuko dudan. Hasiz gero, esanak dioen bezala "hasiak egina dirudi" eta hala izanen da. Ez da hala? Has nadin bada, gehiago luzatu gabe.

Juanikok eta Juanitok ez zuten beharbada gramatika askorik jakinen, teorian, baina bai praktikan, ederki mintzatzzen baitziren (Juaniko mintzatzzen da, bizi baita eta buru onarekin gainera) Gramatika dugu buruan sartzen hizkuntza bat ikasten dugunean. Zer den gramatika esaten duzu? Hori ba, hizkuntza batek bere gramatika du, bere oreka, bere komuntzaturak, esaldiak sortzeko bere era. Hizkuntza bakoitzak berea.

Ez zuten jakinen beharbada, zer den aditza; ez zekiten **nor-nork**, **nor-nori-nork** eta horrelako aditz-

jokoen berri, baina guk haiengandik ikasi genuen hizketan, ez haiek eta ez guk jakin gabe gramatika kontu horiek.

Egun batean hala, pilotan ari eta mingaina ere jostari, eta non esan nuen edo besteren batek esan zuen honako hau:

-Ikusi diot Estebani.

-Ze esan duk? -Juanikok

-Ikusi diotela Estebani!

-Ze ikusi diok, belarrie?

Oker hori ez dakit berehalakoan zuzendu genuen, baina orduan

berean ez bazen, laster bai behintzat. Eta taldeko bakar batzuk ikasi ere ongi ikasi genien.

Ikusi **dut** Esteban eta ikusi **diot** Estebani hanka, bi gauza dira. Eta hala, askoz geroago, aunitzetan pentsatu izan dut, **nor-nori-zer** eta **nor-nork** aditz-jokoak erabiltzen bazekitela, guk erdararen morroi, ezjakin hutsak ginenean, teorian eta praktikan.

Eduki aditza beste bat, noizbehinka gaizki erabiltzen entzun zigutela eta zuzendu.

Ongi gogoan ere ez dut, baina ez zen izanen *hamar urte dauzkat* eta horrelakorik. Hori gurean behintzat oso gaizki dago, **hamar urte ditut** da eta. Kontua da entzun izan niela behin baino gehiagotan esaten burlaizez edo:

-Euki esan duk? Euki? Poltsan, diruel!

Jakina, **eduki** aditza gutxitan erabiltzen da gurean, ia-ia beti **nik ditut** eta horrela izaten baita. Ez naiz hasiko hemen azalpen gehiagorik ematen. Guk ttikitan batzuetan nahasten genituen, erdararen morroi, baina hurbilean izaten zen zuzentzailea.

Kasu bakan horietako bat, musean ari zareten gazteok ikas dezazuen, **eduki** erabiltzen dugu *quiero, las veo*, erdarazkoen ordain bezala.

Gaurkoz aski dugu, Aralarren nago, Artxuetan, egarriz eta ur tantarik gabe, eta banoa Baraibarra ardo frexko tragoxka bat edatera. Izan ongi, lagunok!



Etxeke sukaldean Juaniko, patxada ederrean ▲





eta zuzendu gintuzten (IV)

Dena igual da

Nire haurtzaroa eta euskara. Hori dut gaia. Euskaraz nola egin nuen aurrera. Ea bada, nire prozesua norbaitentzat baliagarri den.

Dena igual da, hori dio izatez zabarra denak, hori dio, utziak, enasak, endesak eta axolagabeak. Beste hitz batez esateko, "nolanahi" denak. Horiena da, *dena berdin da*. Bai, bai, dena berdin da; kaka da berdin!, eta azkenean lurra berdinduko gaitu, baina munduan garen bitartean dena ez da berdin. Nola izanen da berdina desberdina dena, nola izanen da zuzena eta okerra gauza bera, nola zuria beltza? Nola izanen da ireki atea eta hertsu atea kontu bera?

Ongi hitz egin, zuzen eta txukun mintzatu edo trakets elekatu eta gramatikari ostikoka ibiltzea berdin ote da ba?

Hizketan ikastez ez dugu inoiz bukatuko, dena behar izaten dugu eta beharrezkoa dugu. Eta ongi dakien bat ondoan badugu ongi baino hobeki, eta eskertzekoa izaten da erakustea gustatzen zaiona bada. Mila esker Juaniko Erbiti Etxalekuko euskaldun bikainari. Nik erakustuna beti maitatu izan dut, ikastea gustatzen baitzait. 2018an edo izanen zen, noski, batzarre bat **Herrikoetxean** izan genuela. Batzarrea bukatu eta

lau lagun hurbildu ginen ostatuko barrara. Lauak ere adinean sartuak. Ezkerrean Juaniko, ondoren ni, hurrengoan Joxe Miel eta laugarren tokian Pedro Joxe.

Halako batean urruneneko izkinatik Pedro Joxek bota zuen ez dakit zer.

Eta urrutien zuen Juanikok:

-Zizzzzt!

(Ni ere ohartu nintzen esaldi traketsa zela erabat. Denok ohartu ginen)

Orduan Joxe Mielek hartu zuen txanda esaldia hobetu nahian. Eta honek ere oker!

(Okar esan dik honek ere, baina niri ez bururatzen esaldi zuzena eta isilik ez egon behar eta ea ongi ateratzen zitzaidan proba)

Jolaserakoan ez dago probarik, badakizu edo ez dakizu.

Nik ere bota nuen eta zanpa, oker.

Orduan Juanikok hartu zuen txanda, laugarrena zen, eta zapla, bota zuen esaldi biribila, ederki esana.

-Ja, ja, ja! -Denok

Nik, nirekiko, ez zuan ba arraroa, zaila edo bihurria! Eta bildu behar diat esaldi hori, baina biharamunean ezin oroitu. Eta horrela gelditu naiz, gaurko gauzak biharko atzentzen den adinera iritsi baikara. Okerrago

izanen da orain esan eta sarri atzentzen den eguna.

Barrean gineno, Juanikoren zuzenketa ederki iruditu zitzaigun. Baina, bada jendea ongi erakutsi eta gaizki hartzen duena, bada jendea ongi erakutsi eta mutur txarra jarriko dizuna, bada jendilajea ongi erakutsi eta eskertuko ez duena. Zer eginen diogu ba! Bere kalte!

Zaharrago eta kritikoago, zaharrago eta autokritikoago. Zaharrago eta kazkarrago! Hori esaten dit andreak, eta ni kontent. Badago bizia. Ez gaituzte domatu, ez gaituzte bezatu, ez gaituzte lurpean sartu, dena ez baita igual, dena ez baita berdin. Lurra ez gaitu berdindu, zintzoa eta alua ez dira berdinak.

Euskara euskara baita eta ez erdararen kopia txar bat. Ardo frexkoa ez da ardo trepela; ez ardo gozoa ardo mindua ere!



Txurdan

Hiztegia

- **Endesa eta enasa:** Biak gauza bera esan nahi dute: descuidado, sucio.
- **Kaka da berdin!** Esaldi gogorra da hau. Nire ezadostasun erabatekoa modu gogorrean azaldu nahi nuen eta, horrengatik sartu dut hemen.
- **Elekatu:** Hitz egin (Iparraldeko hitza da)
- **Bezatu:** domatu (Bizkaiko hitza dela)
- **Sarri:** ordu batera, bitara... ezaskora.
- **mindua:** avinagrado
- **Trepela:** epeldua, indarra galdua... (hitz oso arrunta da eta asko erabiltzen duguna)



▲ Zapatiñenakoak, etxeko ate ondoan: Bixenta (+) Ageda eta Juaniko



Azkenean bukatu zuten

Aurreko zenbakietan atera genituen bi artikulu Basaburuko udaletxearen eraikitzeaz. Oraingoan, kontatu genituen nahasketa guziei akabera emanen diegu.

Jaunok, lurrik ez dugu emanen

Urriaren 29a zen, igandea eta atsaldeko bi orduak. 1894ko SISA delakoa zen subastatzen zena. 5.000 pzta zen urteko eta Jauntsarasko Gregorio Barberia eta Francisco Beuntza aritu ziren jo eta jo, 47 tanto artio. Azkenean Francisco Beuntzak, **Martikonekoak** jaso zuen 7.350 peztetan. Ez zen gutxi igo alajaina! Horrela izanik, aise ordainduko zuten udaletxea egitean eginen zuten zorra!

Eta egun berean eta batzarre berean kontzejuak erantzuna eman zien Diputazioaren eta Udalaren erabakiei:

Ez dugu utziko eta gutxiago salduko komunaleko lurrik.

Erantzun hau bistan edukirik eta luze ihardukirik, hitz dotorez at, ez dute erabaki konkreturik hartu:

Alkateari ahalmen zabalena eman, behar den lekuetara jo dezan eta

legeak agintzen duen bidez erdiets dezan Jauntsarasko kontzejuaren baietza.

Diru gehiegi gastatzeko beldur.

Bestalde, jendea ere ez zen konforme. Etxea egiteko diru gehiegi gastatu nahi zen, merkeago egin zitekeen, hori zen marmarra. Eta hori saihesteko, Iruñera joatea pentsatu zuen jende zenbaitek. Bertan, Pedro Arraiza, gure alderdiko Diputatuarekin egon ziren. Honek berehala idatzi bat igorri zion Alkateari, erregutuz aurrekontua jaisteko eta horrela jendea isilduko zela.

Batzarreko erabakia ere laster hartuko zuen bueltan:

Errespetu osoz, baina ezinezkoa zaigu aurrekontuan ekonomia gehiago egitea. Alde batetik, aldaketak eginez gero, konstruktoreak ez luke onartuko indemnizazio bat gabe eta, bestetik, eraikuntza eskasa izanen litzatekeelako, jakinik ahal dugun

guzia egin genuela eta neurri guziak hartu ekonomikoki bideragarria izateko.

Oztopoz oztopo eta hor segitzen zuten orube bat eskuratu gabe. Eta berriz ere batzarre honetan Alkateari agindua:

Jo ezazu behar den tokira ea orube horren jabe egiten ahal den udala behingoz.

Oraindik ere Jauntsarasko kontzejua bortxatu nahia ageri da hemen, baina pazientzia ez ote zaien agortzen ari sumatzen da.

Udal berritzea eta gastuak ttikitzea

1894ko Urteberri egunean udal berria eratu zen hauteskundeetan ateratako bost kontzejalekin eta aurrera beste bi urtez segituko zuten lauekin:

Udal berriko bederatzi kontzejalak honako hauek ziren:

Eta lehen gauza egin zutena

| DEITURA-IZENAK | K ARGUA | ETXEA |
|----------------------------------|-----------------------------|------------------------------------|
| Arangoa Saldias Fermín | Alkatea | Berueteko Garaikoa |
| Iriarte Apeztegia, Miguel | 1. Tenientea | Udabeko Borbonea. |
| Telletxea Arano, Enrique | Kontzejala. Sindikoa | Berueteko Iturriaga |
| Moreno Astitz, Juan Cruz | Kontzejala | Berueteko Etxeberria |
| Mikeo Garro Jose Ignacio | Kontzejala | Berueteko Arregiko Bordakoa |
| Urritza (Gastearena) Jose Miguel | Kontzejala | Beramendiko Mitxelenea |
| Ezkurra Goldaratzena Pedro | Kontzejala | Orokietako Apezenea |
| Larunbe Erbiti, Francisco | Kontzejala | Ihabengo Elizmendia |
| Goikoetxea Artola, Bautista | Kontzejala | Beramendiko Labronea |



alkatea aukeratzea izan zen. Gauzak beti bezalatsu ziren noski: Fermin Arangoak bost boto atera zituen eta gainerako lauak barratu ziren, inork ere ez baitzuen boto bat baino gehiago atera, eta azkena zurian izan zen.

Nonbait jendea kontent ez, zerbait egin behar, eta gastu arruntak ttikitzea erabaki zuten. Hurrengo bi urtetako agintaldia eta "betiko" bilerak zirela eta hartzen zituzten otamen eta berendu guziak kendu! Hainbestekoa ote zen ogi eta ardotan gastatzen zutena? Itxurakeria hutsa!

Aleluia! Aleluia! Badugu lurra!!!!

Udala berri zuen, Jauntsarasko **Apeztegiko** Manuel Villanuevari agintaldia bukatu zitzaion 1894ko lehen egunean, eta idazkariak eskuak libre zituen dirudienez eta

bere jokoa egin zuen.

Nik gure aitari entzuna:

Sekretarioa omen yun azti samarra, ta ekarrazi omen zin Iruñetik gizon bat Jauntsaratsa eta esan omen zioken Apeztegiko etxe kontrako baratze ederrian sartu eta metroakin hasteko han eta hemen neurrik hartzen. Eta nausie atra ta oiuke hasi men zaiokoen:

-Biño, biño, ze ai'za? -Biño, biño, ze ai'za?

-Hemen naille, ayuntamiento hemen in bia'utela ta neurrik hartzen -eta Manuelek:

-Jesus, Jesus! Zaude, zaude, nik eakutsiko dizut toki hobia.

Ta bere soro batia eaman zin eta hola erditsi ziten lurre Udaletxia itteko.

Kontu berdintsua kontatu zidan orain berriki Berueteko "Sagasti"k, Antonio Otxotorenak ere.

Alkatii lixtoa, Garaiko zena, eta herriko bat biali zin Yoantsasko Apeztegiko baatzii sartu eta neurtzen hasteko esan-ta. Han sartu ta nausii atia men'tzaioken neurtzen ikusi zuniin:

-Aldin zazu hortik, nik emain dizut-eta toki hobia!

Eta hala in ben'tzin, oain daon tokii horta eaman gizona!

Udalak 1894ko otsailean 26an, asteartez eta goizeko bederatzietan egin zuen batzarrera Manuel Villanuevari alor baten erregu eta erdiko zati bat erosteko (1.387 m²). Salerosi prezioa 250 pztakoa izan zen. Merke erosi zuen udalak.

Orubea badugu, obrak hasi dira eta dirua bidean da

Martxoaren 11an, igandea, atsaldeko bi orduetan batzarrea egin zuten.

Orubea erdietsi ondoren, karraskan lanean hasi zen Elizalde Otxandorena konstruktorea. Dena dela, bazituen bi kontu argitu beharrekoak: zer epe zuen obrak bukatzeko? Zer zur mota erabili behar zuen? Haritza edo pinua?

Udalak, aho batez, zera esan zion:

1.-Abuztuaren 31rako lan guziak bukatuak behar zuten izan.

2.-Zura hautatzerakoan, bere iritziaren arabera utzi zuten. Komeni zitzaionean haritza eta komeni zitzaionen pinua (Egia esan behar badugu, jarri zituen karrerak eta zurajea zen guzia haritza sartu zuen, baina, nire gustura mehe xamarrak)

Eta dirua zela eta, Diputazioari baimena eskatzea erabaki zen, 15.898,83 pza.ko diru hartze bat egiteko.



▲ Casa Consistorial. Construida el año 1894



Basaburuko udaletxea (III)

Udaletxeko lanak aurrera. Dirua hartu beharra

Uztailaren lehena, igandea, eta atsaldetako bi orduetan egin dute batzarra. Bederatzietatik bat besterik ez da falta. Hori ohikoa zen, jendea batzarreetara zintzo etortzen zen.

Honetan, eta udaletxeko lanetarako behar den dirua Arrarasko **Mendizabaleko** etxeoandreak eskaini dio Alkateari.

Denak aho batez eman diote baimena hartzeko behar den dirua, azkeneko epekoa ezik, hori lanak bukatu eta urtebetera ordaindu behar baita.

Beste xehetasun batzuk.

Lanak garaiz bukatu zituen Juan Elizalde, ordainketak egiteko dirua ere Arrarasko **Mendizabalekoek** eman zuten, kontratua sinatu ondoren, Severino Barberia Artolaren alarguna zen Francisca Barberia eta Severino Oskotz-ek (nagusi berriak) hain zuten. Adostutako mailegua 15.000 pztakoa zen eta urteko korritua %5ekoa.

SISAtik hartu zuten dirutza izugarrikoa izan zen urte honetan, 7.350 pzt., baina hurrengo urterako ez zen inor agertuko subastara. Nonbait aurreko urtean gehiegi jo zuten. Subasta hutsik

gelditu eta hurrengo hogeita bostean berriz aterako zen, baina 6.350 pztako prezioan.

Neke izan zen, baina azkenean, udaletxeari egin zuten Basaburuan.



Txurdan

- • • • •
- **Hiztegia**
- **SISA:** Edari eta likidoei jartzen zitzaien zerga (ardoa, anisa, olio)
- Udalak ez baitzuen langilerik, saltzelana subastara ateratzen zuen eta ondoren, subasta hartzen zuenak, saldu ahala, balioa + zerga kobratzen zion klienteari, izan herriko ostatua izan pertsona partikularra. Subasta errematanteak pentsatutakoa saltzen bazuen izanen zuen irabazi polita. Pentsatu baino gutxiago saltzen bazuen, irabaziak tikiagoak izanen zituen.
- **Iharduki:** conversar
- **Ahalmena:** poder, facultad
- **Erdietsi, erdiesten:** alcanzar, conseguir. Hemengoa ere bada hitz hau.
- **Aurrekontua:** presupuesto
- **Eraikuntza:** construcción
- **Bideragarria:** viable
- **Orubea:** solar
- **Bortxatu:** forzar
- **Eratu:** constituir, organizar. Hemengo zaharrek erabiltzen dute hitz hau.
- **Agintaldia:** (tiempo de) mandato.
- **Otamena:** bocado, pisolabis, lunch. Hemengoa ere bada hitz hau.
- **Aztia:** 1) brujo 2) inteligente
- **Epea:** plazo
- **Ohikoa:** corriente, usual
- **Mailegua:** préstamo
- • • • •





Neguko zinema jarri du martxan Larraintzarko Bentako Dinamizazio Batzordeak

Urte hasieratik, igandero pelikulak proiektatzen hasi dira Larraintzarko Bentan. Antolatzaileak kontent daude orain arte ekimenak jasotako erantzunarekin, eskaintza eta antolaketa asko hobetu daitezkeela pentsatu arren, aurrekontuaren arabera eskaintza egin ahal izan dutelako. Dinamizazio Batzordetik balorazioa egin digute.

Lehenago sekulako arazoak ematen zizkigun proiektorea eta pantaila txiki bat geneuzkan. Dinamizazio taldetik beti ari ginen beste zerbaitekin behar genuela esaten. Maier enpresak, lehen behintzat, eta guk dakigula, dirua eman zion udalari kultura sustatzeko. Horri esker, batik bat, lortu genuen duela urte batzuk pantaila handi bat jartzea, pelikulak behar bezala ikusteko. Kontua da ez diogula leku gehiegirik kendu nahi izan ostiraletan antolatzen dugunari, alegia, musikari, antzerkiari, hitzaldiari, dokumentalari, tailerreiri eta abarrei, eta ez ge-nion probetxurik ateratzen pantaila handi horri. Ultzamako udalaren aldetik aurrekontutxoak lortu genuen, Golemekoekin, berriz, hain berriak ez diren pelikulak prezio onean uztea. Ho-rrela hasi da dena, ez dakigu noraino iritsiko garen.

Helburua? Igande arratsaldean plan polit bat izatea: pantaila handi bat, pelikula on bat, la-gunak... zer gehiago eska daiteke neguko igande arratsalde baterako? Aproposa da.

Momentuz, neguko kontu bezala ikusten dugu, egunak laburrak eta arratsaldeak ilunak direnerako. Argi daukagu, bestalde, Larraintzarko Bentako bitartekoek —aretoak berak, pantaila handiak, ezaugarri akustikoez...— zinema eskaintza sendoa egitea ahalbidetzen dutela. Oraingoz hileko lehen igandean gazte edo umeei zuzendutako pelikula proiektatu-

ko dugu, euskaraz. Honetarako, euskara zerbitzuko laguntza ere badugu. Aurrenekoa Nire zirkua izan zen, eta bigarrena, Gabi izan da, nerabeei zuzendua. Gai nontzeko pelikulak gazteei, baina batez ere helduei begirakoak dira. Onak iruditu zaizkigun pelikulak edo irribarreraren bat egiteko aukera ematen dutenak aukeratzen ditugu.

Gure erronka, ordea, otsailean ere jarraitzea da, eta datorren urterako, lehen aipatu bezala, negu osorako eskaintza lortzea. Horretarako, kudeaketan parte hartzen duten udalekin el-karlanean aritzeko prestutasuna dugu. Azpimarratu nahi dugu beraiei dagokiela ekarpen ekonomikoa eta dagozkien bestelako arloak lantzea, ezinbestekoak baitira horiek proiektua gauzatzeko. Bestetik, zikloak antolatu ahal izatea ere gustatuko litzaziguke: gaiak

direla, zu-zendariak direla, aktoreak, pelikula motak... Hitz batean esanda, kultur eskaintza gertu-ratzea eta zabaltzea.

Publikoari dagokionez, egia esan, harritu egin gaitu berehalako harrera onak, jendeari, nonbait, gustatu zaio ideia. Lehen igandean gaztetxoak hurbildu ziren gurasoekin, eta bigarrenak are gehiago animatu gintuen, jende purrustada azaldu baitzen, baita gazte koadri-latxo bat ere. Kontent gaude jasotzen ari garen erantzunarekin. Pelikulekin asmatzea, hori da gure erronka! Bukatzeko, Larraintzarko Bentako langileei esker onak ere eman nahiko genizkieke, izan duten prestutasunagatik, pelikula aurretik taberna irekiz.



**Larraintzarko Bentako
Dinamizazio Batzordea**





Jokin Elizalde eta Tasio Zunzarren ultzamarrak, Nafarroako selekzioan

Espainiako areto futbol txapelketa izan zen Almerian abenduaren akaberan, eta 19 urtez azpiko kategorian, Nafarroako selekzioarekin jokatu zuten Ilarregiko Jokin Elizalde eta Gorrnzko Tasio Zunzarren gazteek. Urteak daramatzate biek areto futboleant jokatzeko, atezain postuan lehenak, eta ezker hegalean bigarrenak. Esperientzia ederra izan dela kontatu digute.

Ultzamako futbol taldean hasi ziren bi gazteak txikiak zirelarik, bost bat urtetan. Elkarrekin hasi zuten kirol ibilbidea, eta elkarrekin egin dituzte urte asko talde horretan. "Batera hasi ginen, eta sei edo zazpi urte egin genituen biok hemen", azaldu du Zunzarrenek. 18 urte ditu gaur egun, eta Jokin Elizalde, 17. "Batez ere lagunengatik hasi nintzen ni areto futboleant, txikia nintzenez, ia 'errebotez'. Baina, segituan hartu nion gustua, eta

“Esfortzua eskatu arren, bi gazteek dioten bezala, 'gustuko tokian aldaparik ez'”

oso pozik nago orain”, adierazi du Elizalde.

Bost jokalarit aritzen dira areto futboleant, eta zelaia askoz ere txikiagoa izaten da belarreko futbolarekin alderatuta. "Hemen ez dago belarretako futboleant jokatzeko aukera, eta horregatik hasi ginen areto futboleant. Baina, gerora, probatu izan dut belarretan jokatzeko ere, eta, egia esan, nahiago dut areto futbola", dio Zunzarrenek. Zelai txikiagoa izanik, azkarragoa dela diote biek, eta dibertigarriagoa ere bai. "Bai, belarretako futbol zelaian motelagoa izaten da jokoan normalean, pase gehiago egiten dira... honetan, adi-adi egon beharra duzu, despistatuz gero, jokaldia galdu dezakezu. Beti dago tentsioa", gehitu du Elizalde.

Ibilbidea elkarrekin egin ondoren, gaur egun, talde desberdinetan

Donibane Kirol Elkartean ari da Jokin Elizalde gaur egun. Ultzamatik hara joan zen, eta, geroztik han segitzen du. Hirugarren mailan ari dira jokatzeko, eta gustura dabilela dio. "Astean bitan entrenatzen gara, astelehenetan eta ostegunetan; eta, partidak asteburu izaten ditugu", dio. Tasio Zunzarren ere Iruñerriko talde batean ari da. "Anaitasunan ari naiz jokatzeko, bigarren mailan. Ultzamatik Iruñerriko talde batean ari da. "Anaitasunan ari naiz jokatzeko, bigarren mailan. Ultzamatik Iruñerriko talde batean ari da. Xotara; handik, Zubirira; eta aurten Anaitasunara", dio. Haiek ere astean bitan entrenatzen dira, baina beste egun batean alde fisikoa ere lantzen dute. Eta, partidak, asteburuetan.

Astean hiruzpalau aldiz Iruñera joatea neketsua dela ere onartzen dute, baina esaerak dioten bezala, 'gustuko tokian aldaparik ez'. "Izaten dira egunak Iruñeraino joateak galbana pixka bat ematen duena, bueltan ere berandu iristen baikara, gaueko 22:00ak aldean edo", azaldu du Zunzarrenek. Eta, ondokoa gaineratu Elizalde: "Azterketa garaian eta nabaritzen dut nik batez ere pisu hori. Azkenean, ikasteko ere denbora gutxiago dugu... baina tira, gustatzen zaigun zerbait da, beraz, merezi izaten du".



Jokin Elizalde eta Tasio Zunzarren futbolari ultzamarrak



“ **Jokin Elizalde:**
Esperientzia
oso ederra da
selektioarekin
jokatzea: jende berria
ezagutzen duzu,
lagun berriak egin... ”

Baina, Nafarroako Selektioan,
berri ere elkarrekin

Maila ederrean ari dira bi futbolari ultzamarrak, eta horren adierazle da, haien talde propioetan ez ezik, Nafarroako Selektioarekin ere jokatu dutela behin baino gehiagotan. Azkenekoz, abenduan jokatu zuten selektioarekin, Almerian jokatu zen 19 urtetik beherako Espainiako Areto Futbol Txapelketan.

“14 urtetan joan nintzen lehendabizikoz selektioarekin

jokatzerara, eta, ondoren, 16 urtetan berriz. Azken aukera izaten da 19 urtetako hau”, adierazi du Zunzarrenek. Elizalde bera ere, 16 urtetan joan zen Nafarroako Selektioarekin beste txapelketa bat jokatzea.

Nafarroako hainbat taldetako jokalaria elkartzen dira selektioan, eta horrek elkar ezagutzeko eta egokitzapenerako tarte bat ere eskatzen du. “Gehienek ezagutzen dugu elkar, urte asko direlako elkarren aurka aritzen garela”, adierazi du Zunzarrenek. Selektioak bere entrenamendu propioak egiten ditu txapelketaren aurretik, eta kasu honetan, asteazkenetan elkartu dira. “Bi ordu inguruko entrenamenduak izaten ziren. Astean bitan gure talde propioarekin entrenatzen ginen, eta astean behin, selektioarekin”, gehitu du Elizalde.

Almerian jokatu zituzten kanporaketa partidak abenduaren 27an, 28an eta 29an. Taldekako fasea izaten da lehenik, eta talde bakoitzetik sailkatzen diren komunitateak final laurdenetara

pasatzen dira. Andaluzia, Murtzia eta Melillako komunitateen aurka jokatu zuten nafarrek. “Ez dugu hurrengo fasera pasatzea lortu, baina egindako jokoarekin nahiko gustura gelditu gara. Egokitu zitzaigun taldea zaila zen, maila oneko taldeak baitziren aurkariak. Baina, ‘gerra’ pixka bat eman genien, eta beraz, pozik gelditzeko moduan gaudela uste dut”, dio Elizalde. Zunzarren ere ados azaldu da selektioarekin, eta ondoko gehitu du: “Partidak garrantzitsuak dira, baina kideekin harremana ere bai, eta gure artean harreman oso estua egin dugu. Hori, jokatzerakoan ere nabaritzen da”.

“ **Tasio Zunzarren:**
Entrenamenduetatik
berandu eta
nekatuta iristen gara
maiz, baina gustuko
dugu kirol hau ”



▲ Markel Iturralde Egozkue



Denontzako liburuak

laz zintzoak izan ginenez, Olentzerok oparia ekarri zigun. Gustu guztiendako liburu sorta zen, helduei, gazteei, umeei zuzendutakoak... Eta benetan oso zintzoak izan ginenez, beste egun batean literatura-nobedade gehiagorekin etorri zen, komikiekin, musikadun libururen batekin...

Horietako batzuei buruz hitz egingo dugu hemen (ezin ditugu guztiak aipatu, baina interesatzen zaionari liburutegira hurbildu eta apaletan zer aurkitzen duen ikus dezake. Ziur zerbait dagoela berarendako!)

Liburuak, musikarekin

Hauek dira nobedade batzuk, eta horietako asko txikienek ezagutzen dituzte: *Superpatata*, *Biga*, *Onin*, *Gizajo baten egunkaria*... Baina guztien artean grazia berezia egin digu orkestra oso bat barruan duen liburu polit honek: **Pintto eta orkresta**, **Magali Le Huchere**na. Hau da kontatzen diguna (eta kantatzen diguna): "Pintto oso

pozik dago! Gaur gauean, kontzertu bikaina izango dute basoan. Baina non dira musikariak? Prest zaude doinu z Jositako ibilaldi bihurri bat egiteko? Irakurtzeko istorio bat eta 16 doinu entzungai. Orkestrako musika tresnak (klarinetea, pianoa, biolina, kontrabaxua, xilofonoa) entzun eta ezagutzeko liburu jolasgarria".

Gazteendako manga, misterioa eta komikia

Beti emozio gogorren egarriz dauden gazteendako hainbat ditugu aukeran. **Beldurrezko enigmak** du izenburua eta haxe agintzen du: "Ongi etorri beldurrezko enigmen liburura. Ezagutupertsonaiarikizugarrienak haien aurka eginez ipuinotako protagonistekin batera. Bisitatu Frankenstein bere ezkutalekuan. Ikasi Sorginengandik babesten. Uxatu Gizotso ikaragarria. Ebatzi Momiaren sekretua. Kuxkuxeatu Drakularen gazteluan. Gozatu Halloween gau urdurigarri bat. Murgildu Ness lakuko munstroaren eremuan. Argitu Jekyll Doktoarearen eta Mister Hyderen kasu zirrargarria. Bizi zure haragian Zonbien anabasa. Sentitugaueko Mamuak. Ezinezkoa da istorio hauetatik ihes egitea: lehenago, istorio bakoitzean gordetako enigma argitu beharko duzu. Gozatu beldurrik gabel!".



Komikiei dagokienez, komiki klasiko batzuk, alde batetik (*Irati*, adibidez) eta manga formatukoak nabarmenduko genituzke, bestetik, **Dinosaurs Sanctuary**, besteak beste, sinopsi tentagarri honekin: "1946an irla batean dinosauro biziak aurkitu zirenetik, ugalketa programek eta edizio genetikoek narrasti galduak erabat berreskuratzea lortu zuten. Haien presentzia ikaragarriak mundu osoko jendea xarmatu zuen, baina istripu batez geroztik fokuetatik urrun gelditzen dira. Halako egun batez, Suzume Suma zaintzaile gisa hasi da gainbeheran dagoen Enoshima Dinoland dinosauro parkean".






Oso latza izan da

Gure liburutegitik igaro aurretik, badirudi Olentzero Durangon barna ibilizela, zakuan euskal literaturako idazle ezagunenaren liburu berri batzuk sartu baitzituen guretzat, hala nola **Bernado Atxagarena (Paradisuaaren kanpoko aldeak)** **Uxue Alberdirenaren (Belarriko kilkerra)**, **Karmele Jaiorenaren (Maitasun kapital)** eta **Juan Luis Zabalarenaren (Dimisioa)**. Baina baita indarra hartzen ari diren egile gazteenenak ere: **Garazi Arrula (Lurraz beste)**, **Ana Labaka (Barraskiloek baino bat gehiago)**

edo **Goiatz Labandibar (Bekatua)**. Horien guztien artean bat nabarmentzearren, **Oso latza izan da**, aukeratuko dugu. Testigantza liburu honen argumentuarekin uzten zaituztegu: "Joxe Arregiri, hil ostean, Zizurkilgo hilerrian ezkutuan egin zizkioten argazkien historia berreraikitzen du nobela labur honek, han protagonista izan ziren hiru lagunaren bizitzak aletzen: Joxe Arregi bera, Bixente Ameztoi pintorea eta Juan Kruz Unzurrunzaga ekintzaile eta arte-promotorea".

 **Patxi Irurzun,**
Utzamako liburuzaina

Zorionak Zorionak!





Zozketa mundialeko saridunen zerrenda, elkarrizketa eta kolaborazio zenbait, Interneteko gure txokoan

Hilero bezala, edukiz betea dator oraingoan ere amezti.eus webgunea. Batik bat irratiko kolaborazio eta elkarrizketekin osatu dugu hilabetea, baina bestelakorik ere egon da eta, besteak beste, Pulunpeko zozketa mundialaren saridunen zerrenda.

Txolarreak, eskolaz kanpoko jarduerak eta telesailak, irratiko kolaborazioetan

Bai, bai, denetik topatuko duzue irratiko kolaborazioen atalean. Izan ere, badakizue askotariko gaiak jorratzen dituzten kolaboratzaile finak ditugula Esan Erranen: ingurumena, feminismoa, zinema, literatura, musika, haur eta gaztetxoaren heziketari lotutako gakoak...

Ingurumenaren atalean, esaterako, etxe txolarreen eta hurbilean ditugun beste zenbait hegaztiren gainbeheraren inguruan hausnartzeko tartea hartu genuen losu Alfaro etsaindarrarekin. Ba al dakizue ze faktore dauden galera horren aurrean, eta guk zer egin genezakeen horri aurre egiteko? Gako horiek eta gehiago eman zizkigun biologoak.

Laia Llopen Zer jan, hura izan kolaborazioan, berriz, elikagaien koloreen inguruan aritu ginen hizketan. Bazenekiten elikagaien

koloreek zer bait esaten digutela haien propietateen inguruan?

Zinemako gomendioak ekarri dizkigu hilabete honetan ere Jule Goñi erasoarrak Spoiler Alert atalera: La ley de Lidia Poët eta El otro lado telesailak eta Rag Union pelikula izan ditugu hizpide.

Bestetik, hilero bezala, Bakartxo Iragi orientatzaile odietarrarekin Egunerokotasunari aurre egiteko gakoak izeneko tartearen atal berri bat ere izan dugu. Hilabete honetan, **eskolaz kanpoko jardueren** inguruan aritu zaigu orientatzailea.

Aipatutako horiek eta kolaborazio gehiago ere aurkituko dituzue amezti.eus-en, irratiko kolaborazioen orrialdean. Ondoko QRan duzue atal horretarako sarbidea:



Irratiko kolaborazioak

Ramon Sampedro eta eutanasia eskubidea, memoriaren txokoan

Dakizue, ostiraleko irratsaio bereziak txandakatu egiten ditugu: ostiral batean Memoriaren Txokoa deitu dugun irratsaio berria, efemeride baten errepaso sakona egiten duguna, eta hurrengo ostiralean, Egun Ero Kantuz saio musikatu berezia.

Ilbeltzaren 12ko Memoriaren Txokoa saioan, Ramon Sampedro idazle galiziarraren heriotzaren urteurrena aitzakia hartuta, eutanasia eskubidearen inguruko irratsaioa egin genuen. Hemen duzue entzungai:



Ramon Sampedro





Loperena jatetxeko etxekoandrea

Abenduaren 14an hil zen Rosario Etxandi Lizaso, Iraizozko Maizkorneko alaba (Artxaian etxea) 97 urtetan.

Hainen ezaguna genuen "Loperena" Restituto Oiartzun Grajirenaren alarguna.

Restituto eta Rosariok, ezkondu zirenean, Gerendiango ostatua hartu zuten eta handik bi urtetara edo Lizasoko Deskarge. Hemen 10 bat urte egin ondoren, Burlatara pasatu ziren eta Karrika Nagusian ostatua ireki zuten, Loperena izena zuena.

Restituto gizon ezaguna eta gizartekoia baldin bazen, batez ere Burlatako ostatu horretako jabea zelakoz, non gure alderdiko

gehientsuenak bertatik pasatzen ziren, andreak, Rosariok, sukaldari onaren fama bildu zuen, Euskal Herri guzian ezaguna izan baitzen.

Bere ehiza, onddo eta basa produktuekin egindako platerak egin zuten handi. Iruñeko errestaurante famatuetatik, izan Rodero, izan Josetxo edo izan Europa..., pasatutakoa dugu ehiza prestatzen.

Senar-emazte hauek, biak iraiizoztarrak, nahiz Burlatan jarri bizitzen, ez zuten inola ere Ultzamarekiko harremana galdu, harreman estua izan zuten esturik bada. Astebururo Iraizotzen izaten ziren, eta beren umeek ere kuadrillak hemengoak izan zituzten.

Bost seme-alaben gurasoak izan ziren eta horietatik hiru hemen gelditu dira: Iraizotzen bi: Koldo

eta Joseba, azken hau Iraizozko Muñoan; eta Begoña, Urritzolako Dorrean.

Jende euskaltzaleak, bai aita eta bai ama. Euskara txertatu zienak seme-alabei.

Dena dela, euskararen auzian bat egiten bazuten ere, ez ziren denetan hala, behin Joseba seme gazteenak honako hau esan baitzidan: ama eta aita ez ziren politika berekoak!. Harrigarria! Hemen ez zen bete esaldi hura: Politikan aita nongo, ama ere hangoa.

Bai, "Loperena"tarrek arrastoa utzi zuten gure alderdi guzian. Ez dira berehalakoan urratuko gure gogoan.

Pulunperen partez dolumin estuenak Oiartzun-Etxandi familiari guziari. Goain beude Restituto eta Rosario.



Hector Cabeza Goñi hil zaigu

Batzuetan hola da bizia, bat-batean herioa etor liteke gizonen egitasmo handienak bazterrean utzaraziz. Hori gertatu zaio Hector lagunari ere.

Mekanika ikasketak Oronoz-Mugairin egin eta Iruñean aritu zen lanean urte batzuek. Baina, Beratsain, sorterrria zuen gogoko eta hona etorri eta baltegi batean jarri zuen tailer koxkor bat, hangoa eta hemengo autoak konpontzeko. Laster zuen bildu kliente andana, izan Atezkoak, izan Ultzamakoak... edo Iruñekoak.

Ondoren hasi zen tailer handiago bat egiteko asmotan Aroztegin erosi zuen lur mutur batean. Nekearen nekez, paperak egin eta eraikina altxatu ere bai. Eta dena burutzeko azken ukituak ematen ari zela heriotza etorri zaio. Ustekabean, gauek goizera, azaroaren 5ean, biziak huts egin dio, hainen maitekorra zen Hectorri.

Nahigabea ikaragarria ezagun genuenon artean. Eta batez ere, bere familiakoen artean. Antonia Goñi Oiartzun, ama, bakarrik gelditu da Antsonean Hectorren presentzia gabe, etxea betetzen zuen Hectorren bihotz zabal eta gizatasuna gabe.

Atsekabean lagun Antsoneko eta Errandoneko familei.



▲ Adiskide minak eta autozaleak egin dioten oroigarria, bihotz bihotzez.

2023ko abendua

2023ko abenduan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ULTZAMA Arraitz

Ion eta Unai Iraola Oteiza, Bentetako Ramorenan sortuak, abenduaren 17an. Ion eta Anaren semeak.

“ Zorionak gurasoei ”



▲ Aitana bizkor dago, badezake bi anaittoekin

Ezkontzak:

Guk dakigula, azaroan ez da ezkontzarik izan.

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

Heriotzak:

ANUE Etsain

Juana Maria Zizur Gurbindo, Legarreko etxeakoandrea, abenduaren 31n hil zen, 68 urtetan.

Olague

Delia Iraizotz Antzizar, Perikoneko alaba, abenduaren 7an hil zen, 76 urtetan.



▲ Delia

BASABURUA Arrarats

Jose Luis Leziaga Arretxea, Eskoletxea esk.ko nagusia, abenduaren 9an hil zen, 86 urtetan.



▲ Jose Luis

ULTZAMA Eltzaburu

Jose Manuel Oitz Ezkurra, Marteneko nagusia, abenduaren 20an hil zen, 71 urtetan.



▲ Jose Manuel

IMOTZ Etxaleku

Petra laben Mariñelarena, Iturriko etxeakoandrea, abenduaren 17an hil zen, 88 urtetan.



▲ Petra

Lizaso

Antontxu Ezkurra Carrillo, abenduaren 25ean hil zen, 75 urtetan.



▲ Antontxu

Oharra

Azkeneko PULUNPEN Iraizotzen sortu zen mutikoaren bigarren deitura gaizki jarri genuen. Luar Iribarren ZABALETA da. Amaren aldeko aitaxiren deitura jarri beharrean amaxirena jarri baikenion. Barkazioa eskatzea besterik ez zaigu gelditzen.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



"Grabatzen, grabatzen..."

Laster izanen duzue gure berri.

Esan Erranek, 25!"



Esan Erran
IRRATIA
107.9 FM